

## KLUBAREN KOMUNIKATUA

Aitzeder Mendi Taldeak 6 urteko ibilbidea egin ondoren (eta aurretik beste hainbeste urte, klub ofiziala izan aurretik), eskerrak eman nahi dizkizuegu Kluban jarritako konfiantza eta ilusioagatik. Hazkundera handia eta etengabea izan da. Zenbaki objektiboek dagokienez: dagoeneko 177 bazkide gara, federatuen ehunekoa inoiz baino handiagoa izanda; eta hazkundera amets eta erronka berrietan: irteeretatik haratagoko hainbat jarduera, formatu berriak, tontor berriak.

Hazkunde horrek, ilusioa eta erronka-faktore garrantzitsua izateaz gain, lan karga handia dakar. Lan hori Klubeko Batzordeak, Zuzendaritza Batzordeak, ongintzazko gidarien taldeak eta noizean behin era askotako zereginekin laguntzen gaituzten pertsonak egiten dute.

**Jakin badakigu gaur egun landu beharreko erronkarik garrantzitsuenetako bat irteeretako plazak kudeatzeko kontua dela.** Hori dela eta, hau hobetzeko epe labur eta ertainean martxan jarriko diren zenbait neurri jakinarazten dizkizuegu komunikatu honen bitartez.

Lehenik eta behin, argitu nahi dugu **40 pertsonako mugarekin jarraituko dugula**, uste baitugu gehiago izatea ez dela bideragarria, ezta arduratsua ere mendira joateko orduan. Garraioari, martxaren eritmoari eta irteeraren kudeaketari dagokienez, talde handiago batek bideraezin egingo lituzke geure jarduerak.

Epe laburrean, 2 neurri aurkezten ditugu:

- Irteeretarako **deialdia irteeraren aurreko asteko ostegunean zabalduko da, 18:00etan**. Horrela, interesa duzuen pertsonak adi egoteko aukera izango duzue, eta lan-jarduera handiagoko une eta ordutegiekin bat etor ez dadin saiatzeko gara, jakinda bazkide bakoitzaren errealitate pertsonala desberdina dela. Autobus pribatuarekin egingo diren irteeretarako deialdia (2 aurrekusi dira aurten) beste epe batzuekin zabalduko da, eta behar besteko aurrerapenaz jakinaraziko da.
- **Izen-ematea ezeztatuta edo irteerara etortzen ez diren pertsonak ezingo dute hurrengo irteeran parte hartu**. Horrela, ekintzan parte hartu ahal izango duela argi daukanak bakarrik izena ematea sustatzea espero dugu. Alde batetik Kluba borondatez antolatzen dugunontzako lan karga den izen-emateen kudeaketa erraztuz eta, bestetik, irteera-egunean alferrik galdutako plaza librerik gera ez dadin.

Epe ertainean:

- Azaroko Asanblada Orokorrean aurkeztuko den bezala, **Klubaren helburua 2024ko urtariletik aurrera hileko irteerak bikoiztea da**. Horrela, hilean 80 pertsonak izango dute gure ekintzetan parte hartzeko aukera.

Neurri horiez gain, **irteeretako izen-ematearen erabilera arduratsua egitea eskatzen dugu: izena emateko momentuan, ezustekorik izan ezean, irteerara joan ahalko dela argi izatea ezinbestekoa da**. Gaur egun, plazak abiadura handian betetzen dira, eta

hau ez da islatzen irteeran dagoen benetako parte-hartzean. Gure ustez, plazen betetze sentrazioa benetakoa baino handiagoa da.

Era berean, irteerak Klubeko Batzordeak eta ongintzako gidari-taldeak prestatzen dituztela gogorarazi nahi dizuegu. Klubaren hazkundearen alde lan egin nahi duten federatu guztioi gurekin harremanetan jartzera animatzen zaituztegu, formakuntza txiki bat egin ondoren jarduerak prestatzen laguntzeko.

Agur bero bat,

**Aitzeder Mendi Taldea**  
2023ko otsailak 3